

IZADIA

Izadiaren ederra udabarrirantza goazenean agertzen asten da. Negua bearrezkoa izan arren lurra atsedenduteko, koko barrabasak gitxituteko ta abar, neguaren illuntasunak eta otzak moteldu egiten ditu mendi, zelai ta soloak ta izadi guztia bera be, tristeago aurkitzen da. Zerbait barritasuna bear dala dirudi. Edota bestelan, agure zarragotu egingo gaitu negu baltzaren arpegi illunak.

Baiña egunak egunari dei egiten dautso ta taka taka, eldu gara argi aldiko sasoi pozgarri ontara. Oso osoan sartu gara ba udabarrira. Ta au da poza asmetan dauana izadi guztiak ta baita gizadiak bere. Astuntasun aundi bat kentzen dala dirudi lepo gaiñetik. Solora joakeran asmetan dira txori kanta ezbarriñak, abere txiki oneik, zur, dagoz zugutzen adar puntetan euren aide ta bakeari abes-tuten. Ta bidez bidez lagunak bat euren ingurura doanean, laster, iges egingo dabe, susmo txarren bat euren artean eginda.

Bien bitartean txori abeslariak euren amesa ta poza zabaltzen dautse arizti ta zelaiei ta soloan bearrean dabil-tzezan baserritar aintzatsuei. Txorien kantuak alaitzen dau biotza udabarri usaiñean.

Udabarriak ba dau beste lillura edo zoramen bat, oraindik, bardin barik, ederragoa, geuri geiago ikututen dauskuna, geure gorputz bizitzaren sati bat bai da. Negua-ren amaieretan zan, eskolara niñoiara, Gabon ostean sasi baltza zurututa ikusten naban. Gauz arrigarria neritxon. Ta eskolara sasi ondolik joan bear ta, ara eldu nintzanean, nire arrimena gauz pozgarria izan zan.

Neguko arrantzarte baltz aretan edurra lora zuri biur-tuta egoan. Udabarriko aurrelariak ziran, eguzkia, lurra ta lagunak agurtzen, arantza ordez giza bizia poztuten eben.

Ta inguru edergarri ontan priskuak, loretan, aurrera joiezan, euren izate guztia gizadiari eskeinduz, apal eta zintzo eskola ondoko madaria be zoragarriko kimu barriak urtenda egoan. Udabarriaren asieran bizia dario lurrak ta bere barruko bizi-arnasia prisku, sagar ta mada-ri biurturik damosku. Ta dana biziaren legeari jarraituz, gizonari bizia emoten.

Sasiak arantza artean lora zuria emoten dau, zugatzak, itsu itsuan, lora ondoren sagar ta madari ale gozo ta bizi-garriak. Munduko landara ederrenak giza semeak dira. Berez, jakituriz, apainduak ta biotz dardara edertuak. Jaungoikoak gizonaren bidez munduan egiten dau nai dauana. Argi-argi, igarleen bidez agertu dausku.

Egilleak nai dau gizadia zuzendu ta edertzea, gosea gizartetik kentzea, zapalduak goratzea, zuzengabekeriz espetxeratuak askatzea. Sarritan, gizonak berbeta au ez dabe onartzen, baiña Jesusek era onetan berba egiten eutsen. Zuek gizonak lez berba egiten dozue ta ez Jaun-goikoak lez. Jesusen jokabidea da, zuzentasuna, lagunta-suna, urkoari on egitea. Ta Jesusen jarraitzaille kristi-ñauen bearra ba orixe berberori da... Ta ortik dator betiko askatasunaren zoria.

Paulin

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ
ALDIZKARIA

Egilea: "Euskerazaleak"

Kudeatzailea: Fernandez 'tar Karnele

Idazkola: "Euskerazaleak"

Zuzendaria: Olazar 'tar Martin (Euskerazaintzakoa)

Idazleak: Atutxa 'tar Paul (Euskerazaintzakoa)

Arrinda 'tar Anes (Euskerazaintzakoa)

Aldalur 'tar Justine

Egaña 'tar Gotzon

Solozabal 'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)

Martiaru 'tar Iñaki

Latiegi 'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

Zubiri 'tar Iñaki (Euskerazaintzakoa) (+)